# Kode Deontologikoaren Sareko Lantaldea

1. BILERA: 2018/02/13

# NORTZUK BATU GARA?

## Komunikabideak

Marian Parra (EiTB)

Aloña Velasco (SER) (ezin etorria adierazi du)

Joxe Rojas (TOKIKOM)

## Agentziak

José Félix Ruiz (Ttupp / Euskadiko Agentzien Elkartea)

Peru Arrasate (Di-da)

## Emakunde

Ángel Rodríguez

Raquel Raposo

## Begira Batzordea

Pablo Vidal

## Idazkaritza Teknikoa

Itziar Cámara

Diego Fernández

# ZERTARAKO BATU GARA?

- Lantaldearen funtzionamendua zehazteko
- Hurrengo jardunaldien formatuaz eta edukiaz hitz egiteko

# LANTALDEARI BURUZ

## Ideia ona!

Oso positibotzat jotzen da lantaldea sortzea, komunikabideek eta agentziek jardunaldiak zehazteko prozesuan parte-hartze zuzena izatearen garrantzia azpimarratuz

## Dinamika

- Urtez urte aldatzen joan
- 3 bilera urtean, jardunaldien aurretik: otsaila, maiatza, urria + lan pertsonal puntuala, materialak, gaiak, proposamenak... baloratzeko
- Printzipioz, Bilbon

## Eginkizunak

- Jardunaldien formatua eta edukia finkatzea
- Sarean lantzeko gaiak proposatzea
- Sarearen funtzionamendua eta kudeaketa hobetzeko estrategiak proposatzea
- Publizitatearekin eta komunikazioarekin lotutako ikerketa-gaiak proposatzea
- Sarearen lana gizarteratzea

# JARDUNALDIAK. FORMATUA.

- 3 jardunaldi urtean, 4 ordukoak. Astearte edo ostegunetan
- Dinamikei buruz:
  - Komeni da dinamikak **arintzea**, azken orduko presak ekiditeko
  - Mahaiak sektoreka banatzea (Komunikabideak/agentziak) ondo dago, baina **gai zehatzetan komeni da bi sektoreak nahastea**
  - Komeni da, azkenean, **mahaietako lanaren ostean, elkarrekin gogoeta egiteko tarte bat** gordetzea
  - Arindu hitzaldiak eta aurkezpenak, eztabaidatzeko eta iritziak trukatzeko denbora izateko
  - Funtsezkoak dira **esperientzia praktiko**en tailerrak
  - **Neurtu denbora mahaietako aurkezpenetan**, guztiek aukera berberak izan ditzaten
  - Jardunaldi bakoitzean **amaierako produktu** bat zehaztea. Zer eramango dugu etxera? Produktu horiekin prentsa-oharrak sortzea, informazioa zabaltzeko

# JARDUNALDIAK. EDUKIA.

- Hainbat proposamen daude mahaiaren gainean 2018rako:
  - Emakumeen kontrako indarkeria – Emakumeen saleroskera – Prostituzioa
  - Kirola
  - Gazteria
  - Publizitate sexistaren agerpenarekin lotura izan dezaketen data bereziak

- Emakundek lehen gaia lantzeko interesa agertu du (Genero Indarkeriaren kontrako Estatu Itunaren barruan sartzen da). Gai konplexua dela eta Sarean jorratu aurretik hausnarketa eskatzen duela erabaki da.
- **2018an KIROLA aztertzea** proposatu du Lantaldeak. Gai horren inguruan badira abiapuntutzat erabil daitezkeen hainbat lan.

# AZKEN OHARRAK

## Beste gai batzuk

- **EIKEN Euskadiko Ikus-Entzunezko Klusterra** Sarean sartzera gonbidatzea erabaki dugu
- Faktoria Lilak sortutako ‘Begirada’ buletin digitalaren zero zenbakia berrikustea eta baloratzea erabaki dugu

## Aztertzen joateko gaiak…

- **PRESTAKUNTZA:** beharren azterketa eta formakuntza-eskaintzaren diseinua
- Sarera **beste entitate batzuk erakartzeko** estrategia
- Sarearen monitorizazioa, **aktibo ez dauden kideak identifikatzeko**
- Entitate eta zuzendaritzen **konpromisoa** nola lortu
- Sareko kideen **jardunbide on**en bilduma
- Sarearen lanaren **hedapena eta autoebaluazioa**

# Eskerrik asko!

Joxe Rojas. jrojas@tokikom.eus